

Julian Alustiza Jauregi Aztiri

*Oñati, Gipuzkoa
(1913-2005)*

Aurkibidea

Biografia



Euskal idazle, poeta eta sermolaria. Gabiri herriko Aztiri baserrian jaio zen, eta izen hori goitizentzat hartu zioten. Sermolaritzan dohain berezia zuen, erabiltzen zuen hizkuntza aberatsarengatik. Valladoliden apaiz frantziskotar ordenatu zen eta Tolosa eta Zarauzko komentuetako nagusia izan zen. Gaztelan, Erriberan, Arantzazun eta Gipuzkoako eta Nafarroako hainbat herritan ibilitakoa. Azken 50 urteak Arantzazun eman zituen. Hainbat lan ere argitaratu zituen.

Zintak

ONA-018

• **Proiektua:** Oñatiko Ahozko Ondarea

- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Data:** 1996-07-09
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Elortza, Kepa

ONA-019

- **Proiektua:** Oñatiko Ahozko Ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Data:** 1996-07-09
- **Iraupena:** 40 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Elortza, Kepa

ONA-181

- **Proiektua:** Linua, ehuna eta artilea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Isazelaia Igartua, Jaione
- **Data:** 1996-06-09
- **Iraupena:** 28 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

Pasarteak

1. Marragero eta zurda-sokak

- **Erref:** ONA-181/002
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:00:22. **Bukatu:** 00:02:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Marrageroak, mantak egiten zituzten kalamuarekin. Sokak kalamu eta ganaduaren zurdarekin egiten zituzten.</p>

Transkripzioa

-Marrageroen berri badezu?

-Marrageroak, marrageroak eta hauek ez daukate zer ikusirik.

-Mantagileak edo ziran, ez?

-Bai, baiña hoiek ziran beste... kalamuakin egingo zuten hoiek, seguraski. Marrageroak hemen ez dira azaltzen ezertarako. Liho gauzakin ez det uste ze ikusirik daukatenik marrageroak.

-Gerardok esan dost esateko, agertu zaiola berari XVIII. mendian edo XIX. mendian, marrageroak, ehuliak, hilanderak... ofiziotan holakoak.

-Baiño, ez ziran lanbide berdiñak izango. Lanbidea berdin xamarra zan, zeatik mantak egiteko're haria behar zuten. Baiño liho-haria ez det uste erabiltzen zutenik marrageroak. Marrageroak seguraski erabiliko zuten kalamua.

-Zuk ez duzu ezagutu edo entzun horren berri?

-Ez, marrageroik, nik dakitala, ez det ezagutu. Ez diot sekula... Nik erabili ditudan lekukoak, testiguak'e, sekula ez didate marragero konturik aipatu. Ta mantak egiten zutenik ere ez. Egiten zituzten, gauza bastoak eta, lehen

esan deten horrekin, mukarrarekin ta hola, ohian gainean jartzeko bai, maindireen gainean, izaran gainean jartzeko. Baiña mantarik ta hola ez, lihoarekin ez zuten egiten. Hori ia, asko behar zan hortarako. Nik uste det kalamua erabiliko zutela. Liño basto horrekin ere sokak egin zitezkeen; mukarrakin.

-Jaione Isazelaia: Ez dot uste. Sokak kalamuakin eta ganauan zurdiakin.

-Oaindio, gero hori, ehune eginda gero're, josi egin behar zan. Hori zan beste bat.

2. Ehuna kanatan neurtzen zuten

- **Erref:** ONA-181/003
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:02:30. **Bukatu:** 00:05:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>84 zentimetro zabalerako kanatan egiten zuten ehuna. Liho eta ehunarekiko esaerak. Ehun 'orriak' egiten zituzten eta gero elkarrekin josi puntada berezi batekin.</p>

Transkripzioa

-Jaione Isazelaia: Ehuna egiten zan kanako neurrixan, zabaleria?
-Julian Alustiza: Bai, kana.
-Jaione: Eta kanak, larogeita lau zentimetro dauzka?
-Julian: Toki guztietan ez det uste berdiña danik. Baiño bai, bai.
-Jaione: Eta kana erdiak? Ze kanaerdia ez dot aurkitu iñon.
-Julian: Kanaerdia, ba erdia izango da.
-Jaione: Bai? Dudan nago.
-Julian: Nik uste det baietz. Ez det oroitzen gauza garbiik. Baiño kanakoa izaten zen gehienetan hemen egiten zena, hemengo ehuleak egiten zutena. Eta kanako hainbeste; hainbeste diru edo hainbeste gari edo, eamaten zuten.
-Kana zer da, zabaleran?
-Julian: Zabaleria.
-Eta luzeran?
-Jaione: Luzeeria, ba, segun zenbat hari eruaten jakon ehuliei. Dana dala, aurrez jakite zebe zenbat kana ertengo zotsen. Bueno, zabaleria zan, eta luzeeria be bai. Luzeeria be kanetan neurtzen zebe.
-Julian: Eta horrekin ia bazekiten zenbait ordaindu behar zuten. Izarak ez dakit zenbat kana izango zuten; kana erdi, edo kana t'erdi? Izarak.
-Jaione: Zabaleria? Segun. Izaten zian orrixak, eta gero josi eitten zebe. Bi orrikin, edo hiru, segun zenbat nahi izaten zan, ba, josi, tartian.
-Julian: Nik ezagutu nittuen izarak, behintzat, zabalak ziran, oso zabalak. Ohia ondo harrapatzen zuten. Haiek zenbait orri izango zituzten? hiru baiño gehiago behintzat. Ez dakit zenbat orrikoak izango ziren, baiño hirutik gora.
-Jaione: Puntada berezi batekin josten zebe.
-Eta gero ez zan igartzen?
-Jaione: Ez, ez zan igartzen. Ez zan igartzen, ze aurretik ehuna ehuliak eitten zaban ertzak ondo errematauta. Ehunan ertza ondo errematauta eoten zan, apropos gero hori eitteko. Hori egin ta erdixa ez zan igartzen.

3. Maiatzero etxeko ehuna garbitzen

- **Erref:** ONA-181/004
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:05:10. **Bukatu:** 00:07:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Gero 'urratu' egiten zen ehuna, errekan jota. Urtero, maiatzean, etxeko ehun guztia garbitzen zen. Ehuleak tertulia ere maite zuten, kontulari ezagunak ekartzen zituztelarik batzuetan.</p>

Transkripzioa

Gero, urratu, kostatzen zan urratzea, e. Errekan jo. Ta lehen esan deguna, izara hoiek askotan irauten zuten gizaldi batetik bestera. Baiño, hala ta guztiz'e, maiatzean urtero-urtero dena garbittu behar zan, erabiltzen ziren soiñekoak, ba, gehiagotan garbittu beharko zituzten. Baiño, izarak, erabiltzen ez zirenak ere, maiatzean urtero-urtero garbitzen ziren. Eta zenbait eta gehiago garbittu, eta orduan eta zuriagoa, eta orduan eta leunagoa. Oso estimatua zan oihal hori, ehuna. Horreatik esaten zuten,

“ehunak, ehun lan”, “ehun bihaleku”. Edo beste toki batean esaten dute, “liñoaren nekeak, akaberarik gabeak”. Baiño bazuen bere atsegiña, lehen esan deguna. Orduan ez zegoan ez irratirik, ez telebistarik ta ez ezer. Han biltzen ziren eta kontu-kontari. Batzuetan kontalari berexiak ere eramaten zituzten, orain eramaten dituzten bezela, orduan ere baziren auzoetan-eta kontalari berexiak, gizonezkon bat, edo emakumezkon bat, bereziak. Beste batzuek ere, edozeiñek ere orduan, kontuak kontatzen aparteko eskola zuten. Zeati hure eskola zan, eskola, lehendik zetorren eskola. Esaten dute “haiek ez zuten kulturarik”. Ez zaukatela kulturaik? Guk baiño gehiago. Nik jakin nahi nuke haiek zeukaten kultura. Nere arrebai, esate baterako; nere arrebak euskara besteik ez du egin sekula bere bizitzan. Eduki dittudan, aurretik eduki dittudan maistrak oso onak izan dira, amonak oso ondo zekian euskara. Amak ere bai, Aretxabaleta batekoa zan, baiño oso ondo. Gero, gero ere, oain ezkontuta dagon etxe hortan, hango amonak ere oso ondo zekien, eta lanean ibillitakoa, gauza hauetan ibillitakoa eta kontatzen zizkian orduan erabiltzen zittuzten ipui batzuek, hemen azaltzen da bat, `Hamarrenak´ deritzana. Beno, ba, ipui hori bera, hori kontatu zidan neri, orain hogeta hamar urte edo gehio, berrogei urte edo.

4. Irule edo ehule

- **Erref:** ONA-181/006
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:16:43. **Bukatu:** 00:17:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Irulea eta ehulearen arteko bereizkuntzak.</p>

Transkripzioa

Gero, nola bereixi irulea ta ehulea, hortaz hitz egin deu. Iruleak haria egin egiten zuen. Haria egin. Ehuleak, berriz, hari hortaz baliaturik, oihala eiho edo eho, eho esaten dute toki batzuetan; hau da, ehun oihala moldatu ehuntegian. Hor dago aldea. Seguraski ehuleak haririk ez zuten berak sekula egingo, zetorren hariarekin gero oihala egin.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-08-25

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com